

KLAUDIO SAGARZAZU

SATARKA EDO AZKEN

ERROMANTIKOA

TXOMIN SAGARTZAZU

EUSKAL baratzean ari garelarik, bada, gu baino helduagoak direnen erreferentzietan guretan baino gehiago, arreta berezia eta hedadura zabala izan duen kantatxo sentibera eta xume bat ¹:

<i>Aurtxo polita</i>	<i>Txakur aundia</i>
<i>Seaskan dago,</i>	<i>Etorriko da</i>
<i>Zapi zuritan</i>	<i>Zuk ez ba'dezu</i>
<i>Txit bero...</i>	<i>Eiten lo.</i>
<i>Amonak dio:</i>	<i>Orregatik ba</i>
<i>¡Ene potxolo!</i>	<i>¡Ene potxolo!</i>
<i>Arren egin ba,</i>	<i>Egin aguro</i>
<i>Lo-lo, lo...</i>	<i>Lo-lo, lo...</i>
<i>Dlin-dlan, dlin-dlan...</i>	<i>Dlin-dlan, dlin-dlan...</i>

Ezagutzen ez duenari bertso pareta adierazkorra izan dakiokeelakoan nago: **Aurtxo seaskan**. Sentiberatasuna, samurtasuna eta bihotzaren *hari meheenak* ukitzeko tonuan atonduriko kanta dugu.

Musikari dagokionez, kantaren doinua *Eresoinkaren* zuzendari izan zen Gabriel Olaizolari zor zaio, eta armonizazioa bere anaia Jose organujole ezagunari. Letra, berriz, **Klaudio Sagarzazu** *Satarka* poeta hondarribiarraren poema bat da ². Eta ezagunegia ez, edota ahantzixe daukagulakoan, azken horren izen-deiturek, Klaudio Sagarzazurenak alegia, marraztuko dizkigute artikulu honen nondik-norakoak.

Euskal literaturaren sailean argitara diren emaitzen artean izango dugu, besteetan gertatu ohi den bezalatsu, frutu umorik, heldugaberik eta besteren hazitarako suertatu denik. Garaian garaiko joera eta modei jarraituz egokitu zaizkigu, nola edo hala, zorionez edo halabeharrez, literatura berorren historia eraikitzeko parada eskaini duten obrak eta egileak.

Sailkatzeko momentuan—behar taxonomikoa ezinbestekoa gertatzen baita, nonbait, gizon-emakumeen behar nagusien artean—garai bakoitzaren *begiratuaren* arauera izango ditugu, denen ahoan aurretik joango direnak, eta txirriindularien antzera tropelean horien atzetik joango direnak; izango ditugu baita bolada batean ihes eginda aurretik joango direnak, baina urteen poderioz tropelak atzeman, pa-sa eta bertan behera utzi dituenak ere.

Egun indarrean dirauen begiratu nagusi baten arauera, esate baterako, Klaudio Sagarzazu genuke, beste askoren antzera, euskal literaturaren historian tropelean doazen poeta horietako bat, garai zehatz batean (mende honen hasieran, demagun 1918. urtetik aurrera, lehenengo saria eskura duenez gerotzik), molde estetiko jakin batzuei (Erromantizismoaren bigarren aldi *xume, sentibera eta samurra*ren jarraipena izango den euskal poesigintza epigonista) jarraituz, neurtitza era sinplean landuko duen poeta herrikoia, Lizardi, Lauaxeta eta Orixek suposaturiko mugimendua baino lehen sorkuntza-alarrean lanean aritu zen poeta multzoan sartu beharrekoa.

Idea honen norabidean mintzo zaizkigu, batzuk eztiago, beste batzuk latzago, gure literaturaren historia egin duten adituak.

Ibon SARASOLA ³, kasurako:

XX-gn. mendearen hasierako poesia lora-jokoetako estilo romantiko berant eta dekadentearen segida da. Bertsolari molderekin nahasturik, Espainiako bigarren edo hirugarren mailako poeta ruralisten kutsua ager-arazitzen du.

Baita Koldo MITXELENA ere ⁴:

En el segundo y tercer decenio de este siglo pueden citarse entre nosotros, pasando por alto a muchos otros, los nombres de Emeterio Arrese, Elzo, Pedro de Embeita, Luis de Jáuregui, Claudio Sagarzazu. Se trata en general de poesía fácil, post-romántica, de tono ligeramente elegiaco.

Hortaz, horixe genuke Klaudio Sagarzazuren tropela: Emeterio Arrese, Elzo, Zubigar, Kepa Enbeita eta Jautarkol, besteak beste.

Baina gurean sarritan gertatu ohi den bezala, arestian aipaturiko behar taxonomiko horren barenan oraindik ez da taldearen azterketa zehatzik egin, Juan Mari LEKUONAREN hitzak kontutan hartzen baditugu, behintzat ⁵:

Literatura erakusten dugunean, hutsune handiegia uzten dugu: askotan Arrese Beitiatik Lizardira pasatzen gara, hutsune eskolastikoa esan nahi dut, eskoletako hutsunea, alegia, tarte horretan beste poesiarik ez balego. Eta jakina, Satarka, bai Elzo bat, Zubigar bai Jautarkol, eta Emeterio Arrese, e.a., hor badago poeta-bilduma bat benetan aipagarria.

Azaldu diren izenen artean bada besteak baino ezagunagoa gertatzen dena: JAUTARKOL errenteriara. Eta Jautarkol eta Satarka izengoitiek kidetasun fonetikoaz gain, badute, talde berean sartzeko *motiborik*. Ikusi besterik ez dago bataren eta bestearen poesigintza tonu, molde eta gai beretsuez ari direla jabetzeko. Gehiago esatera ausartuko nintzateke: izendeiturarik gabeko zenbait poema irakurrita, azaleko irakurketan behintzat, zail gerta dakioke bati baino gehiagori bietarik zein zeinena den antzematea.

SATARKAREN produkzioari dagokionez, Klaudio Sagarzazu gazterik hasi zen idazten, bizitzan zehar aldizkari ugari argitaratu zituzten haren poemak. Gerra baino lehen bere poemak argitara zituztenen artean izen ezagunak ez da falta: *Euskal Erria, El Bidasoa, Hermes, Euskal Esnalea, Euzko Deya, Gure Herria...* Gerra ondokoetan Egan, El Bidasoa, Karmel, Olerti, Zeruko Argia...

Bi liburutan bildu zituen han eta hemen barreiatutako poemak sortak hondarribiarrak. Lehenengo liburua, *Txinpartak*, 1922. urtean Donostiako Loiolatar Eneko deuna irakolak argitaratu zion. Bertan berrogeitamar poema eskaintzen ditu, be-

re baitatik sortutakoak eta itzulpenen artean. Bigarren sail hontan Víctor Hugo eta Heine ageri dira, egilearen eta garaian modan zeuden molde estetikoek nondik norakoak garbi adieraz ditzaketenak.

Bigarren liburua, gerraren isilaldiaren ondoren argitaratu zen: *Intza begietan*, 1957an, Valverderen eskutik. Liburua ilustratzeko irudiak errenteriarrak berak, Antonio Valverde, AYALDEk marraztu zizkion. Bertan hamasei poema azaltzen dira, denak bere baitarikoak. Liburu honen hitzaurrea beste pertsona ospetsu batek idatzi zuen: Manuel LEKUONAK.

Satarkaren gaiei buruz ari garelarik, lehenengo liburuaren gaien artean aberria eta maitasuna nabarmentzen dira, eta bigarrenean, bada jarraipenik (nahiz eta aberririk ez agertu), liburuaren kontrazaleko AYALDEren beraren hitzetan esateko:

amaren oroi xamurra, beste Ama ill-zorian ikustea, lore igartuak, guda zitelen ondoreak, txori abeslarien eriotzak, eta olako beste olerti-gaiek intzaz bustita ditute olerkari onen begi argiak.

Poesigintza moeta honen tankera artikuluan zehar barrea-turiko aipamenak medio zirriborratua den arren, ezin ahantz ditzakegu MITXELENAK luze gabe baina zehatz (ohi legez) *Intza begietan* argitara ondoren poesia hori definitzeko erabili zituen hitzak ⁶:

Poesia txukun-apaiña, baina errikoia eta errax-antzekoa; barrenkoia eta goibel-ixurikoa. «Intza begietan» eta malkoa biotzean. Sugarra, arrimena edo poz ajolakabea baiño naiago zuten, izan ere, negar xamur ixilla.

Honelako poeta gaur egun orrialde hauetar ekartzeak ez lu-ke idazlearen aldarrikatze-lan edo apologia hutsa izan nahi, ezta urrik eman ere, beste asmo bat du gidari: zenbaiti gure literaturaren garai bat gogoraraztea, beste zenbaiti, berriz, garai hori ezagutzeko bidean jartzea.

Ez da, modak moda, alferrikako lana, ezagutzarako propo-samena baizik. Juan Mari LEKUONAREkin ⁷ *lirikotasun me-*

hegia duela esango dugu, baina, beste aldetik, garbi dago Sa-tarka eta bere garaiko idazleak ezinbesteko erreferentzia-puntu gertatu direla gure aurreko belaunaldi batentzat. Leku-kotasun adierazkorrik aipatzekotan MITXELENA dugu, berriro ⁸:

Eztaikit zer esan bear duen poesi-mota onezaz egun edo biarko kritikak. Nik beintzat ezin dezaket gai onetan kritikarik egin. Au baita aurretan, besterik bazen ere enekienean, eza-gutu nuena; au, euskaldun guztiok, baita zekenenak ere, bio-tzean gorderik daukagun xoko minbera orretaraiño sartu zi-tzaidana. Geroztik irakurri dut oberik eta goragokorik, baiña ez tut bestetan sumatu ustekabeen artu ninduen aurtzaroko ikara berri aren bizia.

Gurea ere ez da kritikaren bidetik joatea, ezagutze asmoa-renetik joatea baizik, azken finean, harako beste hondarribiar hark bezala, BORDARIk bezala, alegia, belaunaldi bati, kasu hontan poeta bati, aitortu ahal izan diezaiogun, distantziak distantzia, ñabardurak ñabardura ⁹:

Esan nai dedana da, zuk, zure mailla bete zenuela, jakiña, garaian garaiko, Euskal-Olerti zurubian. Zure biotzari, iñork ez bezela kendu zenion ezti-azi gozoa!

OHARRAK

- 1 SAGARTZAZU Kauldi (SATARKA), *Txinpartak*, Donostia, 1922, 13-14 or.
- 2 SAN MARTIN. Juan. «"Aurtxo seaskan" kantari zenbait ohar», *Hondarribia*, 25. zenb., 1988eko urria, 8.or. Artikulu honetatik abiatuta ikus: ARANA MARTIJA, J. A. *Eresoinka. Embajada cultural vasca, 1937-1939*, Gasteiz, 1986. 175 or.
- 3 SARASOLA, Ibon. *Euskal literaturaren historia*. Donostia, 1971, 118. or.
- 4 MICHELENA, Luis. *Historia de la literatura vasca*. Madrid, 1960. 145-146. or.
- 5 LEKUONA, Juan Mari. *Satarkari buruzko mahai-ingurua*, 1985.eko abenduaren 6an Hondarribian esandako hitzetatik.
- 6 MITXELENA, Luis. «Intza begietan». *Egan*, 1958, 1-2 zenb., 105. or.
- 7 LEKUONA, Juan Mari, *ibidem*.
- 8 MITXELENA, Luis, *Egan*, *ibidem*.
- 9 BORDARI (ARTOLA, Fernando), «Satarka», *Zeruko Argia*, 1972.eko irailak 3, 15. or.



A.

pag. 28